

### **Zure tarifan sartzen den Max-en plan estandarraren zerbitzuko baldintzak**

Max Estandar zerbitzua Warner Bros. Discovery, Inc-ek emango du bere aplikazioaren bidez edo <https://www.max.com/es/es> helbidearen bidez.

Max Estandar zerbitzuaren funtzionalitateak WBDk eskaintzen dituen ezaugarrietara eta haren ezaugarri teknikoetara mugatuta daude, eta hari dagokio zerbitzua ematea.

Zure zuntzeko eta/edo mugikorreko paketeen Max Estandar ere izateko, Max zerbitzua aktibatu behar duzu, posta elektronikoz edo SMS bidez jakinaraziko dizugun aktibazio-prozesuari jarraituz.

Zerbitzura sartzeko, erabiltzaile-izen bat eta pasahitz bat beharko ditu bezeroak; haien bidez, Max plataformara sartuko da, eta, handik, zerbitzua kudeatzeko aukera izango du, Max-en pribatutasun-politika onartu ondoren.

Max Estandar zerbitzua barne duen zuntz- eta/edo mugikor- zerbitzuan baja emateak berekin dakar baja ematea automatikoki Max-ek emandako zerbitzuan.

Max Estandar zerbitzuaren oinarritzko kuotaren prezioa tarifaren prezioari gehituko zaio.

WBD izango da Max Estandar zerbitzuaren harpidetza egiteko Bezeroak WBDri ematen dizkion datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna, eta WBDren pribatutasun-politikan aurreikusitakoaren arabera tratatuko dira datuok. Operadoreak ez dizkio jakinaraziko zure datu pertsonalak WBDri, eta ez ditu harekin partekatuko, salbu eta identifikatzaile bakar bat, zeinaren helburua baita harpidetzari dagozkion kuotak kudeatzea eta zeina WBDrekin partekatuko baitu Max zerbitzua emateko izapideetarako.

### **Zure tarifan sartzen ez den Max-en plan estandarraren zerbitzuko baldintzak**

Max Estandar zerbitzua Warner Bros. Discovery, Inc-ek emango du bere aplikazioaren bidez edo <https://www.max.com/es/es> helbidearen bidez.

Max Estandar zerbitzuaren funtzionalitateak WBDk eskaintzen dituen ezaugarrietara eta haren ezaugarri teknikoetara mugatuta daude, eta hari dagokio zerbitzua ematea.

Max Estandar zerbitzuaz gozatzeko, Max zerbitzua aktibatu behar duzu, posta elektronikoz edo SMS bidez jakinaraziko dizugun aktibazio-prozesuari jarraituz.

Zerbitzura sartzeko, erabiltzaile-izen bat eta pasahitz bat beharko ditu bezeroak; haien bidez, Max plataformara sartuko da, eta, handik, zerbitzua kudeatzeko aukera izango du, Max Estandarren pribatutasun-politika onartu ondoren.

Max Estandar zerbitzuaren oinarrizko kuotaren prezioa tarifaren prezioari gehituko zaio.

WBD izango da Max zerbitzuaren harpidetza egiteko Bezeroak WBDri ematen dizkion datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna, eta WBDren pribatutasun-politikan aurreikusitakoaren arabera tratatuko dira datuok. Operadoreak ez dizkio jakinaraziko zure datu pertsonalak WBDri, eta ez ditu harekin partekatuko, salbu eta identifikatzaile bakar bat, zeinaren helburua baita harpidetzari dagozkion kuotak kudeatzea eta zeina WBDrekin partekatuko baitu Max Estandar zerbitzua emateko izapideetarako.